



2002/10/22ko prentsa-oharra

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI)2002ko iraila

BIDAIARIEN SARRERAK % 8 GEHITU DIRA 2002KO IRAILEAN

Udako hilabeteetan (uztaila-iraila), 2001eko aldi berean baino 40.000 bidaiari-sarrera gehiago erregistratu dira, % 9 gehiago.

2002ko irailean, 133.736 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino ia 10.000 sarrera gehiago, hau da, % 8ko gehikuntza, Eustatek eskainitako datuen arabera. Bidaiari-sarrerak % 15 gehitu dira Araban, % 8 Bizkaian, eta % 4 Gipuzkoan.

Estatutik datozen bidaiarien kopuruak gora egin du (%9), atzerriko bidaiarien sarrerak baino gehiago (% 5). Estatutik datozen bidaiarien kopurua hiru herrialdeetan igo da: % 16 Bizkaian, % 14 Araban, eta % 2 Gipuzkoan. Eta atzeritik datozen bidaiariak % 17 gehitu dira Araban eta % 9 Gipuzkoan; Bizkaian, berriz, % 4 urritu dira.

Estatutik datozen bidaiarien artean, batik bat Madrildik, Andaluziatik, Asturiastik eta Gaztela eta Leondik datozenak gehitu dira. Pixka bat gutxitu dira, aitzitik, Murtziatik, Kataluniatik eta Galiziatik etorriak, besteak beste. Atzerriko bidaiarien artean, aipatzekoa da, Frantziatik, Erresuma Batutik eta Europako gainerako herrialdeetatik datozen bisitariak izan duten gehikuntza; pixka bat urritu dira, oster, Italiatik eta Alemaniatik etorriak.

2002ko irailean, 253.427 gaualdi erregistratu dira. Horrenbestez, aurreko urteko aldi berean baino ia 19.000 gehiago izan dira, hau da, % 8 gehitu dira ehuneko-baliotan. Egindako gaualdien kopuruak % 11ko hazkundera izan du Bizkaian, % 7koa Gipuzkoan eta % 5koa Araban.

Euskal AEko hoteletan ostatu hartu duten bidaiarien batez besteko egonaldia mantendu egin da 2002ko irailean (1,89 egun), baina herrialde historikoetan aldaketak izan dira, Bizkaia eta Gipuzkoan % 3 igo da eta Araban, aldiz, % 8 jaitsi.

Plazako betetze-maila % 4 goratu da Euskal AE osoan.

Udako hilabeteetan (uztaila-iraila), bidaiari-sarrera eta gualdiak % 9 igo dira 2001eko udaren aldean; hiru herrialdeei eragin die hazkunde honek, baina ez era berean (Arabian % 5, Bizkaian % 12 eta Gipuzkoan % 9 igo dira bidaiarien sarrerak).

Nekazalturismoa: gehitu egin dira bidaiarien sarrerak (% 41) eta gualdiak (% 39)

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 6.462 bidaiari-sarrera zenbatu dira 2002ko irailean, aurreko urtean baino % 41 gehiago: % 66 ugaritu dira Gipuzkoan, % 24 Bizkaian; eta % 23 Arabian. Gehikuntza hori Estatutik datozen bisitariek eta atzerrikoek eragin dute, % 43 eta % 20 ugaritu baitira, hurrenez hurren, Euskal AEko guztizkoan.

Egindako gualdiak 17.438 izan dira, hau da, 2001eko irailean baino % 39 gehiago, eta horrek Gipuzkoan (% 72) eta Bizkaian (% 26) eragin du, Arabian ez baita izan aldaketarik (% 0).

Batez besteko egonaldia % 1 laburtu da Euskal AE osoan. Arabian % 19 moztu da, eta Gipuzkoa eta Bizkaian % 4 eta % 1 luzatu dira, hurrenez hurren.

Udako hilabeteetan, aurreko urtean baino 6.000 bidaiari-sarrera gehiago zenbatu dira, % 24ko gehikuntza. Tarte berean, gualdiek % 18ko gorakada izan dute.

Argibide gehiagorako:

	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.: +34-945 017 500 Faxa: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Tel.: +34-945 017 506 Faxa: +34-945 017 501 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--

1. taula: hileko emaitzak

EUSKAL AE						ARABA/ALAVA						BIZKAIA						GIPUZKOA					
09/2002	%	09/2001	%	D%		09/2002	%	09/2001	%	D%		09/2002	%	09/2001	%	D%		09/2002	%	09/2001	%	D%	

HOTEL ESTABLEZIMENDUAK

BIDAIARIEN SARRERA	133.736	100	124.145	100	8	25.561	100	22.316	100	15	48.804	100	44.987	100	8	59.371	100	56.842	100	4
Estatukoak	85.371	64	78.127	63	9	17.535	69	15.448	69	14	32.141	66	27.609	61	16	35.695	60	35.070	62	2
Atzerrikoak	48.365	36	46.018	37	5	8.026	31	6.868	31	17	16.663	34	17.378	39	-4	23.676	40	21.772	38	9
GAUALDIAK	253.427	100	234.482	100	8	41.705	100	39.708	100	5	95.009	100	85.560	100	11	116.713	100	109.214	100	7
Estatukoak	160.818	63	149.690	64	7	28.785	69	27.413	69	5	60.717	64	52.117	61	17	71.316	61	70.160	64	2
Atzerrikoak	92.609	37	84.792	36	9	12.920	31	12.295	31	5	34.292	36	33.443	39	3	45.397	39	39.054	36	16
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,89		1,89		0	1,63		1,78		-8	1,95		1,90		3	1,97		1,92		3
PLAZAKO BETETZE MAILA	48,25		46,41		4	51,37		49,20		4	45,20		42,73		6	49,92		48,69		3

NEKAZALTURISMOA

BIDAIARIEN SARRERA	6.462	100	4.599	100	41	1.235	100	1.001	100	23	2.196	100	1.767	100	24	3.031	100	1.831	100	66
Estatukoak	5.755	89	4.012	87	43	1.144	93	866	87	32	1.897	86	1.571	89	21	2.714	90	1.575	86	72
Atzerrikoak	707	11	587	13	20	91	7	135	13	-33	299	14	196	11	53	317	10	256	14	24
GAUALDIAK	17.438	100	12.510	100	39	2.721	100	2.715	100	0	5.697	100	4.539	100	26	9.020	100	5.256	100	72
Estatukoak	15.319	88	10.428	83	47	2.520	93	2.236	82	13	4.884	86	4.090	90	19	7.915	88	4.102	78	93
Atzerrikoak	2.119	12	2.082	17	2	201	7	479	18	-58	813	14	449	10	81	1.105	12	1.154	22	-4
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,70		2,72		-1	2,20		2,71		-19	2,59		2,57		1	2,98		2,87		4
PLAZAKO BETETZE MAILA	28,13		21,63		30	24,85		24,93		0	28,56		24,88		15	29,02		18,31		58

Iturria: EUSTAT